



Osakidetza

GASTEIZKO
ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE - ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA
DE VITORIA - GASTEIZ




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Bihotz gutxiegitasun kroniko sintomatikoa duten pazienteen zeinu eta sintomen maneian neurri higieniko-dietetikoen eragina

Literaturaren azterketa kritikoa

Gradu Amaierako Lana



Leire Ibáñez de Maestu Arnaiz
Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola, 2021-2022 ikasturtea
25/04/2022
Hitz kopurua: 5.414 hitz

AURKIBIDEA

Laburpena	3
1. Esparru kontzeptuala eta justifikazioa.....	4
2. Gaia eta helburua	10
3. Metodologia	11
4. Emaitzak eta eztabaida	14
Murrizketa sodikoa	15
Murrizketa hidrikoa	18
Murrizketa sodikoa eta hidrikoa.....	19
5. Ondorioak	22
6. Mugak.....	23
Bibliografia.....	24
Eranskinak.....	28

LABURPENA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Bihotz-gutxiegitasuna (BG) sindrome kliniko bat da eta sintomak denbora joan ahala garatzen direnean, kronikoa dela esaten da. Espainiako biztanleria helduaren %1,89a BG-a pairatzen du. Biztanleria adinduan, ordea, %10era igotzen da 75 urte baino gehiagokoen artean eta %30era 85 urte baino gehiagokoetan. Sintoma fisikoak osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatearen (OEBK) iragarle nagusienak dira. Hauek maneiatzeko neurri higieniko-dietetikoen barnean, murrizketa sodikoa eta hidrikoa aurkitzen dira. Bi neurri hauen eraginkortasuna aztertzea garrantzitsua da erizainek emandako gomendioak ebidentzia zientifikoan oinarrituta egoteko.

Helburua: Bihotz gutxiegitasun kronikoaren maneian murrizketa sodikoak edota likidoen murrizketak duen eraginkortasuna aztertzea.

Metodologia: Lan hau literaturaren azterketa kritiko bat da. Hainbat datu-baseetan bilaketa egin zen hitz-gakoak erabiliz artikuluek aurkitzeko asmoz, barneratze- eta kanporatze-irizpideak errespetatuz.

Emaitzak: Gradu Amaierako Lan (GrAL) hau burutzeko lortutako 15 artikuluek BGK-aren zeinu eta sintometan (z/s), bizi-kalitatean edota ospitalizazio-tasetan murrizketa sodikoaren eta murrizketa hidrikoaren eragina aztertu dute, bakarkako interbentzioak bezala edo biak batera. Alde batetik, murrizketa sodikoa sintomen gutxitzearekin, osasunari lotutako bizi-kalitatea hobetzearekin eta ospitaleratze-tasak gutxitzearekin lotu zen, betiere pazienteak interbentzioari atxikitzen badira. Bestetik, murrizketa hidrikoak emaitza berdintsuak izan ditu. Hala ere, bi interbentzioak batera aurrera eramatean, sintomak gutxitzeko ahalmena dute baina murrizketa zorrotzegia bada kongestio-maila handitzen da.

Ondorioak: Murrizketa sodikoa eta hidrikoa gomendagarria da z/s-en hobekuntzarako, bizi-kalitatea hobetzeko eta ospitaleratze-tasak jaisteko pazientearen ezaugarriei doitzen badira. Eragin handiena duena murrizketa sodikoa da, 2-3 g sodio/egunekoa, 1-1,5L/eguneko murrizketa hidrikoarekin lagunduta. Hala ere, gai honi buruzko ikerketa gehiago behar dira emaitzen hedagarritasuna bermatzeko.

1. ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Bihotz-gutxiegitasuna (BG) bihotzak gorputzaren behar metabolikorako behar beste odol ponpatzen ez duenean gertatzen den sindrome klinikoa da. Bihotzaren egitura- edota funtzio-anormaltasunak BG-aren eragileak dira, bihotz barneko presio altua edota bihotz-gastu ezegokia sorrarazten duena. Bihotzak uzkurdura indarra galdu ahala, odola beste gorputz-ataletan bildu daiteke (biriketetan, gibelan, traktu gastrointestinalanean, besoetan eta hanketan)¹⁻³.

BG-a sindrome kliniko bat izanda, paziente bakoitzak zeinu eta sintomen (z/s) konbinazio desberdina izan dezake. Sintoma fisikoak osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatearen (OEBK) iragarle nagusienak dira, beraz, hauek identifikatzea eta kontrolatzea ezinbestekoa da. Alde batetik, sintoma ohikoenak disnea, ortopnea, ariketarekiko tolerantzia murriztua, gaueko disnea paroxistikoa, nekea eta bendopnea dira. Bestetik, zeinu espezifikoak, presio benoso jugular handia, biriketetan soinu krepitatzaileak, orkatilen hantura, bulkada apikalaren desplazamendu laterala, errefluxu hepatojugularra eta, BG aurreratuan, Cheyne-Stokes-en arnasketa dira, besteak beste^{1,3-5}.

Beste hainbat sintoma ez tipikoak daude (gaueko eztula, arnasketa txistukaria, hantura-sentsazioa, asetasun postprandiala, jateko gogo galtzea, funtzio kognitiboa gutxitzea, nahastea, depresioa, zorabioa eta sinkopea) baita espezifikitate gutxiko zeinuak ere: edema periferikoa (sakroan, eskrotoan), biriketako estertoreak, nahi gabe pisua hartzea (>2 kg astero), pisua galtzea muskulu-masa galerarekin (BG aurreratuan), bihotz-murmurioa, biriken perkusioan soinu matea, takikardia, pultsu irregularra, takipnea, gorputz-adar hotzak, oliguria...⁴

Mundu mailan, BG-a arazo kliniko eta osasun publikoko arazo garrantzitsua da, eta 23 milioi baino gehiagoko prebalentzia du, hilkortasun, morbiditate eta osasun-gastu esanguratsu batekin lotuta⁶.

Azken hamarkadetan, BG-aren prebalentzia handitu da, batez ere adinekoengan, eta "BG-aren epidemia" espresioa maiz erabiltzen da gertakari hori deskribatzeko. Biztanleria helduaren %1-etik %3-ra BG-a pairatzen dute (Espainian, %1,89). Biztanleria adinduan, ordea, %10-era igotzen da 75 urte baino gehiagokoen artean eta %30-era 85 urte baino gehiagokoetan. Herrialde garatuetan, adinari doitutako intzidentzia gutxitzen ari da, gaixotasun kardiobaskularra hobeto maneiatzearen ondorioz tratamendu farmakologiko eta ez farmakologikoari esker eta biziraupena handitzearen ondorioz. Arrazoi beragatik, intzidentzia orokorra handitzen ari da. Espainian, 2015 eta 2018 urteen artean, intzidentzia 2,78/1.000 kasu/urte izan zen^{2,6,7}.

2012an, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 6.149 heriotza egon ziren guztira. BG-a emakumeen heriotza eragiten zuten gaixotasun ohikoenen artean laugarrena izan zen, 528 heriotzekin. Gizonen artean, ordea, 270 heriotz eragin zituen, hamaikagarren postuan egonda. Hala ere, 65 urte baino gehiagoko pertsonen artean, BG-a gizonak pairatzen zuten bigarren

gaixotasun kroniko ohikoena zen, kataraten ondoren; emakumeen artean, ordea, hirugarrena izan zen, kataraten eta osteoartrosiaren atzetik. Urteak gora egin ahala, gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko arriskua hazten doa eta ospitaleratzen eta heriotzen bigarren kausa nagusia izatera iristen da 80 urte edo gehiagoko biztanlerian⁸.

BG-aren kostu zuzenak Europako herrialde askotako osasun-arretaren guztizko aurrekontuaren ia %2-a dira. Espainian, 2010ean egindako ikerketa batean, BG kronikoaren (BGK) kostu ekonomikoa, gutxi gora behera, 14.458 eurokoa izan zen New York Heart Association classification (NYHA) II mailan zegoen paziente bakoitzeko eta 23.721 eurokoa NYHA maila III edo IV-an bazeuden. Kostuetatik, %59,1tik %69,8ra zainketa ez profesionalak, %26,7tik %37,4ra kostu sanitarioak eta %3,5a zainketa profesionalak ziren. Kostu sanitarioen artean, kostu ospitalarioa handiena izan zen (komorbilitateak, prozedura inbaditzaileak eta berrospitaleratzeak dira kausa nagusienak), medikazioa bigarrena izanda^{6,9,10}.

BG-aren diagnostikoa aurrekari mediko eta familiarren, azterketa fisikoaren, irudien emaitzen eta odol-analisien arabera lortzen da. BG-aren sintomak bat-batean eta era larrian (akutua, BGA) edo denborarekin garatu daiteke, bihotza ahuldu ahala (kronikoa, BGK). BGK-aren diagnostikorako, bi baldintza bete behar dira. Batetik, bihotzeko anomalia estruktural edota funtzional batek eragindako z/s-ak izatea. Bestetik, peptido natriuretikoaren maila altuak edo birika-pilaketaren edo sistema kardiogenikoaren ebidentzia objektiboa izatea. BGK-a bat-batean okerragotzen bada, BG "deskompentsatua" gisa deskriba daiteke. Horrek ospitaleratzea edo zain barneko tratamendu diuretikoak behar izatea ekar dezake^{1,2,4}.

BG deskompentsatuaren z/s ohikoenak, ospitaleratzerara eramaten dutenak, larrialdietara joan baino 3-7 egun lehenago hasten dira eta disnea (%79,8), eztula (%29,8), ortopnea (%27,7), hanken, orkatilen edota oinen hantura (%23,4) eta nekea (%22,3) dira¹¹.

BG-a sailkatzeko hainbat era daude baina erabilienak ACCF/AHA (Amerikako kardiologia akademiaren fundazioa / bihotzaren Amerikako elkarte), NYHA (New York Heart Association) eta eiekzio-frakzioaren araberkoa dira. Jarraian adierazitako taulan sailkapen hauetako bi erakusten dira^{3,12}:

ACCF/AHA, BG-aren estadioak (bihotzaren egituraren alterazioak eta ondorio klinikoak)		NYHA sailkapen funtzionala (disnearen intentsitatea)	
A	arrisku faktoreak baina sintomarik edo bihotzaren egituraren alteraziorik gabe	-	
B	Bihotzaren egituraren alterazioak BG-aren z/s-rik gabe	I	ariketa fisikoa egiteko limitaziorik ez eta ariketa egiteak ez du sintomarik abiarazten
C	Bihotzaren egituraren alterazioak, BG sintomatikoa (orainaldian edo iraganean)	I	ariketa fisikoa egiteko limitaziorik gabe, ariketa egiteak ez du sintomarik abiarazten
		II	ariketa fisikoa egiteko limitazio arina, ahalegin handien aurrean disnea.
		III	Ariketa fisikoa egiteko limitazio handia, eguneroko jardueren ahalegin arinen aurrean disnea.
D	BG aurreratua, esku-hartze espezializatua behar da	IV	disnea atsedenean, ahalegin txikiekin areagotzen da.

BG-aren larritasuna disfuntzio bentrikularren arabera ere neurtu daiteke. Ezkerreko bentrikuluaren eiekzio-frakzioan (LVEF) oinarritzen da. Adibidez, %50eko EF-ko bihotzak, uzkuertzean, ezkerreko bentrikuluaren bolumena erdira murrizten duela esan nahi du^{3,12}.

- HFcEF: LVEF kontserbatua, >%50.
- HFmEF: LVEF-aren murrizketa moderatua, %40-49.
- HFrfEF: LVEF murriztua, <%40.


Eskuarki, BG-a miokardioko disfuntzioari zor zaio: sistolikoa, diastolikoa edo biak. Hala ere, hainbat kausagatik gara daiteke: arteria koronarioen gaixotasuna, hipertentsioa, balbulen gaixotasunak, arritmiak, miokardiopatiak, bihotzeko gaixotasun kongenitoak, infekzioak, medikazioa, infiltratiboa, gaixotasun endomiokardiakoak, gaixotasun perikardikoak, nahasmen metabolikoak...^{1,2}

Gaixotasuna garatzeko arrisku faktoreak, besteak beste, adina, tentsio arterial altua, gaixotasun baskularra, alkohola, tabakoa, kokaina, diabetesa, sedentarisinoa, dieta hipersodikoa, obesitatea eta gainpisua dira¹³.

Gaur egun, BG-a sendabiderik ez duen gaitz larria da, gibela edo giltzurrunak kalte ditzakeena. Beste konplikazio batzuk biriketako hipertentsioa edo bestelako bihotz-gaixotasunak dira, hala nola, bihotz-taupada irregularrak, bihotz-balbulen gaixotasuna eta bat-bateko bihotz-gelditzea. Beraz, tratamendua klinika hobetzeari eta bizi-itxaropena luzatzeari zuzentzen da^{1,3}.

BG-a aktibazio neurohormonalarekin eta kontrol autonomoko anomaliekin lotzen da, sistema renina-angiotentsina aktibatzen (aldosterona, angiotentsina eta basopresina askatzen dira). Denboran mantentzen bada, sodioa eta ura atxikitzea eragiten du, besteak beste, eta z/s agertzen dira³.

Horregatik, medikuntza prozesu fisiologiko horiek arintzeko estrategietan zentratu da, neurri higieniko-dietetikoekin (bizi-estiloa aldatzeko) eta sendagaiekin, bereziki. Farmakoen artean, erabilienak diuretikoak, angiotentsina bihurtzen duen entzimaren inhibitzaileak (IECA), angiotentsinaren hartzaielen antagonistak (ARA-II), antialdosteronikoak (ARM), betablokeanteak, neprilisinaren eta angiotentsina II-ren hartzaielaren inhibitzaileak, ibabradina, inotropiko positiboak eta inodilatadoreak dira. Blanca Aguayo-k, BG-ean espezializatutako OSI Arabako erizainak idatzitako gidan, eskema hau garatu zuen farmakologia era labur batean azaltzeko³: (1. irudia)



1. irudia: Aguayo B. Vivir con insuficiencia cardíaca. Apuntes para enfermería especializada. 1. ed. Fomento de Investigación y Formación Cardiovascular (FIFEC). Servicio de Cardiología del Hospital Universitario Araba (HUA); 2019;2:19.

Tratamendu ez-farmakologikoen artean, neurri higieniko-dietetikoak ez direnak, estimulatzeko dispositibo inplantatuak (DAI), bihotz berbaskularizazioa, funtzio balbularra hobetzeko interbentzio kirurgikoa, zirkulazioaren asistentzia mekanikoa eta bihotz-transplantea daude³.

Autozainketen inguruan, ezagunen artean, egunero pisatzea, tentsio arteriala eta bihotz-maiztasuna kontrolatzea, gluzemia eta INRa tarte normaletan mantentzea, txertaketa programa betetzea, sintomak eta okerragotzea eragiten duten faktoreak identifikatzea, balantze hidrikoa egitea, dieta mediterraneo jarraitzea murrizketa sodiko moderatuarekin (2-3 gr sodio/egun), ariketa fisikoa egitea, alkohola, tabakoa, kafea eta drogak sahiestea daude, azkenengo hauek neurri higieniko-dietetikoak direnak³.

Aztertutako lehen arreta mailako (LAM) erizaintza-kontsultetan, aurretik komentatutako gomendio guztien artean, garrantzia handiena dietari ematen zitzaion, bereziki ahoratutako gatzaren eta edandako uraren kantitateari. Pazienteei oso garrantzitsua zela esaten zitzaion baina ez zuten azaltzen, ebidentzia zientifikoa oinarrituta, zein zen kantitate egokiena, edo gramo gutxiegi edo gehiegi hartzeak zituen ondorioak. Gainera, neurri hauei atxikitzea oso zaila zela esaten zuten pazienteek, gatzik gabeko bazkariak ez zutela merezi esanez edo egarri egoteak une latzak pasarazten ziela eta ez zutela hainbesterako aldaketak sumatzen z/s-en arloan (hauen arabera tratamendua aldatzen zihoan). Horregatik proposatu zen lan honen azterketa, murrizketa sodikoak edota hidrikoak BGK-an duen eragina, z/s-ak kontrolatzearen arloan eta haien bizi-kalitatean kaltea baino onura gehiago sortzen duen ikusteko.

Alde batetik, argi dago ura ezinbestekoa dela bizitzarako. Bestetik, sodioa beharrezkoa da hainbat prozesu fisiologikoetarako. Dietan sodioa mugatzea bihotz-gutxiiegitasunaren maneiuaren oinarri bat izan da azkenengo hamarkadetan, bereziki paziente sintomatikoetan.

BG-a duten pazienteetan, zehazki, sodio ekarpen hoberena zein den oraindik ez dakigu, baina duela 11 urte baino lehenago egindako ikerketa batzuen arabera, farmakologikoki kontrolatutako BG-a zuten pazienteen artean, murrizketa moderatuko dieta murrizketa handikoa baino gomendagarriagoa zela zirudien. Horrenbestez, pazienteen nutrizio-estrategiak autozainketetan zentratzen dira, sodioaren eta likidoen murrizketa barne, bolumen-gainkargako gertakari akutuen arriskua murrizteko helburuarekin¹⁴⁻¹⁷.

Arestian esandakoaren harira, pazienteak autozainketetan ahalduntzea ezinbestekoa da egonkortasun fisiologikoa mantentzeko eta sintomen agerpenarekin batera erantzuteko gai izateko. Ikertu den bezala, nor bere burua zaintzeko jokabide desegokiak aurrera eramateak BG-aren konplikazioak pairatzeko arriskua handitzen du eta kontrolatu gabeko z/s-ek bizi-kalitatearen okerragotzearekin, ospitalizazioarekin eta heriotzarekin erlazionatuta daude. BG-a duten pazienteen artean, autozainketerako gaitasuna profesional mediko eta erizainaren laguntza izatearekin erlazionatu da, beste aldagaien artean. Gainera, erizainek lideratutako osasun-programek kausa guztiengatiko berrospitaleratzeak, BG-agatiko berrospitalaratzeak eta heriotza-tasa gutxitzen dituzte^{3,18-21}.

Araban, BG-ean espezializatuta dagoen erizain kontsulta bat dago non erizainek pazientea ebaluatzen eta hezten dute, haren jarraipena eta zainketa plana aurrera eramaten dute, aurre-egite estrategiak garatzen laguntzen diete eta farmakoen dosia doitzen doaz. Asistentzia-maila guztietan aurkitu dezakegun gaixotasun bat izanda, garrantzitsua da erizain orok ere haren berri izatea, gaixotasun kronikoen maneia, hezkuntza, formakuntza... erizainen esparru kompetentzialaren barne aurkitzen baita. Horregatik, emandako arreta eta gomendioak ebidentzian oinarritutak egon behar dira, eguneratuak eta bateratuak³.

GrAL honekin BGK-a pairatzen duten pazienteetan murrizketa sodikoak edota hidrikoak z/s-en maneian duten eragina aztertu nahi da literaturaren errebisio bibliografiko baten bidez. Neurri higieniko-dietetiko hauen eragina aztertzea gomendagarria da, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ezinbestekoak direlako eta osasun sistemaren gastu ekonomikoa murrizteko bidea izan daitekeelako. Lana egitearen prozesuan zehar printzipio bioetikoak jarraitu dira, pazientearen onura helburu izanda, emaitzen hedagarritasuna kontuan hartuta eta, behin ondorioak aterata, pazientearen autonomia errespetatzeko nahiarekin, behin informatuta egonda gomendioak jarraitzearen erabakia norberarena delako.

2. GAIA ETA HELBURUA

Gaia:

Bihotz gutxiegitasun kroniko sintomatikoa duten pazienteen zeinu eta sintomen maneian neurri higieniko-dietetikoen eragina.

Helburu nagusia:

Bihotz gutxiegitasun kronikoaren maneian murrizketa sodikoak edota likidoen murrizketak duen eraginkortasuna aztertzea.

Helburu espezifikoak:

1. Bihotz gutxiegitasun kroniko sintomatikoa duten pazienteen zeinu eta sintomen maneian murrizketa sodikoak duen eragina aztertzea.
2. Bihotz gutxiegitasun kroniko sintomatikoa duten pazienteen zeinu eta sintomen maneian likidoen murrizketak duen eragina aztertzea.

3. METODOLOGIA

DISEINU MOTA:

Lan honen helburua lortzeko literaturaren errebisio kritikoa egingo da.

BILAKETA PROZESUA:

Lehenik eta behin, bilaketa-ekuazioan erabiliko ziren hitzak lortu behar ziren. Horretarako, gaia eta helburutik kontzeptu nagusiak lortu ziren (murrizketa sodikoa, likidoen murrizketa, bihotz gutxiegitasun kronikoa eta zeinu eta sintomen maneiuak) eta haien sinonimoak erregistratu ziren bilaketa zabalagoa izateko. Gero, ingelesera itzuli ziren eta, azkenik, lengoia naturalatik lengoia kontrolatura pasa zen datu-baseetan bilaketa aurreratua egin ahal izateko. Datu-base ezberdinetako deskriptoreak lortu ziren (MeSH, Thesaurus, Emtree...) (1. *Eranskina*)

Behin datu-base bakoitzarako deskriptoreak izanda, bilaketa-ekuazio desberdinak egiteko gaitasuna dago, operadore booleanoak (AND, OR) eta filtroak (plazaratze data) erabiliz, helburuari erantzuten dioten beharrezko artikulua aurkitu arte. Horretarako, Medline, Cinahl, Cochrane Database, Cuiden, PsycInfo eta Embase datu-baseak aztertu ziren. Azkenik, esku-bilaketarekin borobildu zen bilaketa. (2. *Eranskina*)

Artikuluaren aukeraketa errazteko, aurretik errebisio honen barneratze- eta kanporatze-irizpideak ezarri ziren.

BARNERATZE-IRIZPIDEAK

- Ikerketetako parte-hartzaileen ezaugarriak:
 - BGK-aren diagnostikoa izatea, NYHA eskalan II., III. edo IV. mailan: BG moderatu eta larriko mailetan murrizketa sodikoa eta likido murrizketa preskribatzen hasten da. Larritasun maila hauetan z/s-ak daude.
 - 18 urte baino gehiago izatea. 65 urte baino gehiago badute hobeto adinarekin BG-a pairatzeko arriskua handitzen delako. Horrela, lagina antzekoa bada, emaitzak konparagarriagoak izango dira.
- Dokumentu mota: modu fidagarrian aurrera eramane diren ikerketak lana ondo ebidentziatuta egoteko.
 - Lehen mailako iturritik ateratakoak: esku-bilaketaren ondorioz aldizkari fidagarrietan eskuratutako artikulua.

- Bigarren mailako iturritik ateratakoak: datu baseetan eskuratutako artikulua.
- Artikulu motak: berrikuspen sistematikoak, meta-analisiak, ikerketa kuantitatiboak (behaketa azterketak: kasu serieak eta deskriptiboak. Analitikoak: kasu-kontrol, kohortezkoak, esperimentalak).
- Full Text-a eskuragarri egotea: dokumentuaren irakurketa kritikoa egin ahal izateko.
- Interbentzio mota: Lanaren helburuari erantzutea. BG-a duten pazienteetan neurri higieniko-dietetikoek sintomen maneian duten eragina aztertzea, zehazki murrizketa sodikoak eta likidoen murrizketak.
- Argitaratze-data:
 - Azken hamar urteetan argitaratutako artikulua: 2011tik orain arte, aztertutako datuak ahal bezain gaurkotuak izateko.
- Artikuluaren hizkuntza: egileak irakurtzeko, ulertzeko eta interpretatzeko gai den hizkuntzak (ingeleza, gaztelania, portuguesa eta euskara).

KANPORATZE-IRIZPIDEAK:

- Ikerketetako parte-hartzaileen ezaugarriak:
 - NYHA sailkapenean I. mailan diagnostikatutako BG-a pairatzen duten pazienteei buruzko analisiak, maila honetako pazienteek z/s oso arinak baitituzte.
 - 18 urte baino gutxiagoko pazienteak dituzten laginak. Pediatrian z/s desberdinak dira eta emaitzak ez ziren hedagarriak izango gainontzeko biztanlerian.
- Dokumentu mota:
 - Gutunak, tesiak... literatura grisa. Dokumentu hauen fidagarritasuna kolokan jar daiteke.
 - Artikuluaren full-texta eskuragarri ez badago. Ezin bada artikulu osoa irakurri ezin daiteke irakurketa kritiko osoa burutu.
- Interbentzio mota: GrAL-aren helburuari erantzuten ez dieten artikulua.

- Argitaratze-data: 2011 baino lehenago argitaratutako artikulua baztertu dira. Horrela, gaurkotua ez dagoen informazioa baztertu da.
- Artikuluen hizkuntza: ingelesez, gastelaniaz, portugesez edo euskaraz idatzita ez dauden artikulua, egilea artikulua ulertzeko gai izateko.

ARTIKULUEN AUKERAKETA

Behin datu-baseetako emaitzak eta barneratze- eta kanporatze-irizpideak izanda, artikuluen aukeraketa egiteari ekin zitzaion. Hasteko, 229 artikuluen izenburua eta abstract-a irakurri ziren. Pausu honen ondoren, errepikatutako dokumentuak (37) alde batera utzi ziren eta irizpideen arabera oraindik baztertu ez ziren 32 artikuluen full-textak eskuratu ziren 2. fasearekin jarraitzeko (azaleko irakurketa burutzea). Hemen 14 artikulua baztertu ziren eta 18 3. fasera igarotzeko irizpideak betetzen zituzten. Azkenik, irakurketa kritikoa egin ondoren, 15 artikulua geratu ziren GrAL-a egituratzeko. (3. *Eranskina*)


ARTIKULUEN ANALISIA

Hautatutako artikuluen fidagarritasuna eta kalitatea bermatzeko, hauen datuen baliagarritasuna ikertu zen testuaren irakurketa sakon baten bidez. Hautatutako artikuluetatik helburuari erantzuteko datu esanguratsuenak hautatu ziren eztabaida atala garatzeko. (4. *Eranskina*) (5. *Eranskina*)


Behin irakurketa kritikoa egin ostean, aurretik aipatutako 15 behin-behitiko artikuluen ezaugarriak laburpen-taula batean aurkeztu ziren: artikulua egilea, argitaratze-data, izenburua, herrialdea, helburua, diseinu mota, lagina, burututako interbentzioa eta emaitza interesgarriak ataletan banatuta. Era honetan, haien arteko alderapena era erraz eta azkar batean egin daiteke. (6. *Eranskina*)

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Graduko amaierako lan honen emaitzak garatzeko, 15 artikulua erabili dira, 8 entsegu kliniko, 6 kohortezko ikerketa eta kasu-kontrol 1. (2. irudia)



2. irudia: egileak eginda



3. irudia: egileak eginda

Artikuluak emandako informazioa eguneratua izan dadin, 2011-2021 urteen artean argitaratuak izan behar ziren. 4 artikulua 2011koak dira, 3 ikerketa 2013koak, 2 artikulua 2014koak, 2015ekoa bakarrik dago, 2 artikulua 2016koak dira eta azkenengo hirurak, 2018koak. (3. irudia)

Artikuluaren jatorriari buruz, aipatzekoa da 9 Amerikako Estatu Batukoak (EEBB) direla eta, gainerakoak, hurrengo herrialde bakoitzeko bat dago: Brasil, China, Suedia, Italia, Canada eta, azkenik, Hegoaldeko Korea. Beraz, gehienak mendebaldeko kultura duten herrialdekoak dira.

Ikerketek erabilitako laginari buruz, 3 artikulua 10-50 arteko parte-hartzaile izan zituzten, 2 artikulua 51-70 arteko lagina lortu zuten eta beste 10 artikulua garatzeko erabilitako laginak 71 pertsona baino gehiagokoak izan ziren. Artikulu bat 75 pertsona barneratu zituen eta gainerakoak, kopuruaren arabera ordenatuak, 97, 105, 109, 123, 175, 232, 244, 260 eta, azkenik, 302ko laginak izan zituzten. Ondorioz, GrAL-ean aurkeztutako artikuluen batzuetan besteko lagina 127,46 parte-hartzailekoa izan zen.

10 artikulua helburuan aipatutako 2 esku-hartzeak indibidualki aztertzen dituzte, hauetatik 8 artikulua murrizketa sodiokoaren eragina aztertzen dute, beste 2-ek, aldiz, murrizketa hidrikoaren eraginkortasuna. Artikuluaren herenak, hau da, 5 artikulua, bi interbentzioak batera aztertzen dituzte. (7. Eranskina)

MURRIZKETA SODIKOA

Kategoria honetan, murrizketa sodikoaren eragina aztertu duten artikulua barneratu dira. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, 2g sodio/egun baino gehiagoko kontsumoa (5g gatz/egun) hipertentsio arteriala, kardiopatia eta istripu zerebrobaskularra izateko arriskua handitzen du. Gida dietetikoek murrizketa sodikoa gomendatzen dute BG-a duten pazienteetan, bereziki z/s badituzte, baina ez dira bat etortzen kantitate zehatz batekin. Gehienek, 2g sodio/egun baino gutxiagoko ingestak gomendatzen dituzte^{14,22}.

Hasteko, Heo S, et al.-ek, 2014an, BG-a zuten pazienteetan sintoma fisikoekin eta osasunari erlazionatutako bizi-kalitateari (OEBK) lotutako faktore psikosoziala eta jokabide-faktore aldagarriak aztertu zituzten. Horretarako, pazienteek faktore desberdinei buruzko hainbat galdetegi erantzun zituzten eta froga desberdinak egin ziren. Sodioen ahorakina neurtzeko, 24h-ko gernu-bilketa burutu zuten eta sintoma fisikoak Symptom Status Questionnaire-Heart Failure (SSQ-HF) erabiliz neurtu ziren. Emaitzetan, sodio-ingestak sintoma fisikoekin lotura esanguratsua duela ateratu zen ($p=0.009$) eta NYHA maila OEBK-arekin erlazionatu zen ($p=0.018$). OEBK-a Minnesota Living with Heart Failure Questionnaire (MLHFQ) erabiliz neurtu zen²³. (8. Eranskina) (9. Eranskina)

Hari beretik, lau urte geroago, Heo S, et al.-ek egindako ikerketan, ekarpen sodikoan, BG-ean eta OEBK-an esku-hartze pertsonalizatu baten eraginkortasuna aztertu zuten. Astero, erizain batek, pazienteen etxean, hiru saio presentzial eta hiru saio telefoniko ematen zituen ekarpen sodikoaren kontrola bermatzeko MyFitnessPal aplikazioa erabiliz, hezkuntza dietetikoa, aholkularitza eta laguntza psikosoziala eskaintzeko 11 parte-hartzailei. 3 hilabetetan, eguneko batez besteko sodio kontsumoa jaitsi zen, 3,9 (1,5)-tik 2,6 (1,1)-ra ($p=0,034$). BG-aren sintomak (SSQ-HF-rekin neurtutak) hobetu ziren, hurrenez hurren 46,5 (21,9)-tik 26,7 (19,8)-ra ($p=0,001$) eta 68 (26,3)-tik 40 (28,8)-ra ($p=0,001$), baita OEBK-a (MLHFQ-rekin neurtuta) ere ($p=0,001$)²⁴. (8. Eranskina) (9. Eranskina)

Sintomei buruz ere ikertu zuten Son YJ, et al.-ek, murrizketa sodikoa duen dieta bati atxikitzeak BGK-aren sintomen kargan eta gertaera kardiako gabeko biziraupenean (GKGB) duen eragina zehaztu nahi zuten. 24h-ko gernu-bilketa bat egin ondoren sodioa neurtzeko, bi talde sortu ziren. T1-ean $<3g$ sodio/egun izan zutenak eta, T2an, $\geq 3g$ sodio/egunekoak. Sintomen karga neurtzeko Memorial Symptom Assessment Scale-Heart Failure (MSAS-HF) erabili zen. Denek murrizketa sodikoa aurrera eramateko eta sintomak monitorizatzeko jarraibideak jaso zituzten. Hasieran, bi taldeen arteko desberdintasun esanguratsu bakarra gorputz-masa indizea (GMI) izan zen ($p<0.01$). Amaieran, T2-koek sintoma karga handiagoa izan zuten ($p=0.007$). Zehazki, disnea ($p=0.008$), ortopnea ($p=0.016$), hanken edo orkatilen hantura ($p=0.004$), energia falta ($p=0.013$) eta jangura eza ($p=0.012$) esanguratsuki aldatu ziren sintomak ziren. Sintomen kargan eragiten duten faktoreen artean emakumea izatea ($p=0.042$), GMI-a ($p=0.015$) eta NYHA maila IV-koa ($p=0.005$) izatea zeuden²⁵. (10. eranskina)

Jarraitzeko, Arcand J, et al.-ek aurrera eramandako ikerketan, BGK-a anbulatorioa eta farmakologikoki egonkorra duten pazienteetan sodio ingesta altuaren eragina konplikazioen agerpenean aztertu zuten. Horretarako, hiru eguneko ahorakinen erregistroa egin ziren, bat hasieran eta beste bat 6-12 aste ondoren, sodio ingestak kalkulatzeko. Paziente talde txiki bat 24h-ko gernu-bilketa burutu zuen esandako ingesten egiaztapena egiteko. Parte-hartzaileak hiru taldetan banatu ziren: T1-ekoek 1.4±0.3 g sodio/egun hartzen zuten, T2-koek, 2.4±0,3 g sodio/egun eta, azkenik, T3-koek 3.8±0.8 g sodio/egun hartzen zutelarik. Sodio ingesten arteko desberdintasuna estatistikoki esanguratsua zen ($p<0.001$). Aipatzekoa da T3-ekoek T1 eta T2-koek baino likido, kaloria eta makronutriente gehiago hartzen zituztela eta gizonak izateko aukera gehiago zutela ikerketaren hasieran ($p<0.001$). Hala ere, sodio asko hartzea (≥ 2.8 g Na/egun) BG-aren deskompentsazio akutua aurreikusteko faktore bakarra izan zen ($p<0.001$)²⁶.

Behin murrizketa sodikoak z/s-etan duen eragina aztertuta, hauen ondorio zuzen batean enfokatuko gara, ospitalizazio-tasan. Doukky R, et al.-ek aurrera eramandako azterlanean, murrizketa sodikoak BG-aren emaitzetan duen eragina ebaluatu zuten, bereziki BG-aren ondoriozko heriotza- edota ospitaleratze-tasan. Horretarako, bi talde sortu zuten galdetegi baten arabera, bata 2,5 mg sodio/egun baino gutxiago hartzen zuena (T1) eta, bestea, murrizketarik gabe jaten zuena ($\geq 2,500$ mg sodio/egun). BG-agatiko ospitaleratze bezala zenbatu ziren arnas faltagatik edo edema periferikoagatik ospitalera joan zirenak, edo biriketako edemaren ebidentzia erradiografikoa bazegoen BG aurrekariekin eta BG-aren terapiari erantzuten bazuten. 2 urtetan zehar, sintoma kardiopulmonarrak ez ziren aldatu era esanguratsuan ($p=0.954$). Ikerketa hasi eta 36 hilabetera, T1ean, 44 (30.3) ospitalizazio egon ziren eta, T2an, 155 (22.5), $p<0.05$ ²⁷.


Gai berarekin jarraituz, Lennie TA, et al.-ek egindako azterlanean, helburua 3 g sodio baino gehiago eta hori baino gutxiago hartzen duten pazienteen artean, bihotz-gertaerarik gabeko biziraupena konparatzea da. Osasun profesionalak ez zuten murrizketa hidrikorik gomendatu. Eguneroko sodioaren ahorakina 24h-ko gernu-bilketa batekin neurtu zen eta bi taldetan banatu ziren, <3 g sodio/egun hartzen zutenak (T1) eta 3g sodio/egun baino gehiago hartzen zutenak (T2). T2-an, NYHA maila III-IV-ko pazienteek T1-ean baino gertakizunik gabeko biziraupen laburragoa izan zuten ($p=0.028$), BG-agatiko ospitaleratzeak edo emergentzia bisitak barne hartzen duena, besteak beste²⁸.

Aurrekoen harira, Song EJ, et al.-ek egunean sodio kantitate desberdinak hartzeak, NYHA mailaren arabera, pazienteen biziraupen askeko desberdintasunean duen eragina konparatu zuten. Jandakoaren eguneroko bat egin ondoren, hiru talde sortu ziren. T1-ekoek 2g sodio/egun baino gutxiago hartzen zuten, T2-koek, 2-3g sodio/egun eta T3-koek, 3g sodio/egun baino gehiago. 22 paziente, NYHA maila III-IV-koak, BG deskompentsatuagatik ospitaleratuak izan ziren: T1-ko 4, T2-ko 6 eta T3-ko 5. NYHA maila III/IV-ko pazienteen artean, 3 g sodio baino gehiago hartzen zituztenak ospitalizazioa edo heriotza jasateko 2,1 arrisku handiagoa izan

zuten egunean 2-3 g sodio irensten zituztenekin alderatuta ($p = 0,044$). Hiru taldeen arteko hankaren behealdeko edo orkatilaren edema desberdintasunak ez ziren esanguratsuak izan ($p=0.626$)²⁹.

Azkenik, esanguratsuak ez ziren emaitzak izan zituen lan bati buruz hitz egingo da. Young L, et al.-ek pazientea “aktibatzeko” 12 aste irauten zuen esku-hartzearen (Patient Activated Care at Home, PATCH) eragina neurtu nahi zuen, nork bere burua zaintzeko gaitasunean, biomarkatzaile klinikoetan, berrospitaleratze-tasan eta larrialdietara egindako bisita kopuruan BG-agatik ospitaleratu ondoren alta jaso eta eremu ruralean bizi ziren pazienteetan. Interbentzio-taldeak (IT) PATCH esku-hatzea eta ohiko zainketak jaso zituen eta kontrol-taldeak (KT), berriz, alta momentuko ohiko zainketak eta medikuarekin jarraipen-hitzorduak bakarrik. PATCH-arekin, ≤ 1500 mg sodio/eguneko murrizketa gomendatzen zen, pazienteek autozainketetan rol aktiboa hartzea saiatu zen, ezagutzak, trebetasunak eta konfiantza garatuz, aldaketak eginez eta portaera berriak mantenduz. Ospitalean bertan, hainbat sesio presentzial jaso zituzten eta, behin etxean egonda, telefonoz egiten zituzten. KT-aren eta IT-aren arteko aldeak zeuden, IT-an KT-an baino NYHA maila III-ko parte-hartzaile gehiago zeuden, bikoitza baino gehiago, 50 baino gutxiagoko eiekzio-frakzioarekin (%23,5 IT-an eta %8,2 KT-an). IT-ko jendea murrizketa sodikoari gehiago atxikitu zirela esan zuten ($p=0.0005$) baina gerru-analisiaren arabera, ez zegoen aldaketa esanguratsurik bi taldeen arteko atxikipenean ($p=0.234$). Gainera, IT-an berrospitaleratze-tasa 30 egunetara handiagotu zen (IT-an 10, KT-an 3), $p=0.08$, baina ez zen estatistikoki esanguratsua³⁰.

Jarraian, atal honetan jorratutako artikuluek ateratako emaitzen konparaketa egiteko grafiko bat aurkezten da: (4. irudia)



4. irudia: egileak eginda

MURRIZKETA HIDRIKOA

Ura hartzeko beharra adinaren, sexuaren eta gorputz-pisuaren arabera zehazten da. 19 urteetatik aurrera, hainbat guidek 2-3,7 L likido eguneko hartzea gomendatzen dute hidratazio-maila egokia mantentzeko. Uraren kontsumoa era akutuan murrizteak eragin kaltegarria izan dezake funtzio kardiobaskularrean, batez ere ariketa fisikoa egitean, beroagatiko estresa izatean eta diuretikoak erabiltzean murrizketa hidrikoarekin batera. Gainera, hipohidratazio sistemiko kronikoa hipertentsioaren, tronboenbolismo benosoaren, gaixotasun koronario hilgarrien eta iktusaren faktore patogenikoa da. BGK-an murrizketa hidrikoari buruz ikertu zuten bi artikulu aurkitu dira^{31,32}.

Alde batetik, Albert NM, et al.-ek altaren ondorengo 60 egunetara BG-ari lotutako bizi-kalitatea aztertzeko helburua zuten. IT-ak 1L likido/eguneko murrizketa zuten, erizain baten heziketarekin eta ohiko zainketekin batera eta KT-ak, berriz, ohiko zainketak jaso zituen bakarrik. BG-arekin erlazionatutako bizi-kalitatea neurtzeko Kansas City Cardiomyopathy Questionnaire (KCCQ) erabili zen, NYHA mailan aldaketak izatearekin esanguratsuki erlazionatuta dagoena (4.5-5 puntu aldaketa = maila bateko aldaketa). 60 egunetara, IT-a BK hobeagoa zeukan KT-arekin konparatuta, sintoma karga txikiagorekin ($p=0.018$) eta guztirako sintoma txikiagorekin ($p=0.022$). Nahiz eta estatistikoki esanguratsu ez izan, IT-a limitazio fisiko gutxiago ($p=0.06$) eta sintoma frekuentzia txikiagoa ($p=0.06$) pairatu zuten. IT-ak alde nabarmenagoa izan zuen KCCQ-aren puntuazioan (16,67-33,33) KT-rekin alderatuta (0-16,67), sintomen eremuan (maiztasuna $p=0.39$; karga $p=0.025$; guztirako sintomak $p=0.026$)³³. (11. *Eranskina*)

Bestetik, Parrinello G, et al.-ek idatzitako artikuluan, BG deskonpentsatuagatik ospitaleratutako pazienteak (NYHA III-IV mailan), klinika egonkorrekin alta izan ondoren (gutxienez NYHA maila funtzional bat jaitsi ondoren), kongestioaren arabera gidatutako jarraipen programa goiztiar eta pertsonalizatu baten eraginkortasuna aztertu zuten. Paziente guztiek, alta momentuan, 1L/eguneko murrizketa hidrikoa eta 2.8 g sodio/eguneko murrizketa sodikoa betetzeko jarraibideak jaso zituzten, furosemida dosi handiekin batera (75-500 mg/egun). IT-a altatik 10 eta 20 egunetara bisita klinikoa jaso zuten. Gero, alta ondoren, hilabete batera, bi eta hiru hilabetera egin ziren. KT-an, berriz, zuzenean alta ondoren hilabete bat igarotzean egin zen lehenengo kontsulta eta gero bi eta hiru hilabetera. Bi taldeen kontsultetan profesional sanitarioen jarrera berdina izan zen eta diuretikoaren dosia eta murrizketa hidrikoa doitzen zuten. Z/s ebaluatzeko Heart Failure Congestion Scale (HFCS) erabili zen. 6 hilabetetara, bi taldeen arteko desberdintasuna esanguratsua zen NYHA mailari dagokionez ($p<0.05$), IT-koa izanda 2.2 ± 0.5 eta KT-arena, 2.7 ± 0.5 . OEBK-ari dagokionez, MLHFQ galdetegiarekin neurtu zuten eta bi taldeen artean, KT-an okerragoa zen urte erdi geroago ($p<0.05$). KT-an bertan, hasieratik 6. hilabetera, NYHA okerragoa zen ($p<0.05$). HFCS-ri dagokionez, 6 hilabetera IT-a 0.72 ± 0.65 puntu eskuratu zituen eta KT-a, 1.42 ± 0.72 , $p<0.05$ izanda. Kasu honetan ere KT-an hasieratik 6 hilabetera izandako aldaketa esanguratsua izan zen ($p<0.05$). Azkenik, IT-a, KT-arekin alderatuta, berrospitaleratze-tasa txikiagoa izan zuen alta ondorengo 6 hilabetetan zehar ($p<0.05$). Beraz, KT-an bertan, denbora aurrera joan ahala, z/s, NYHA maila eta bizi-kalitatea

okerragotu zen, eta IT-arekin konparatuta aldaketak esanguratsuak izan ziren³⁴. (9. eranskina)
(12. Eranskina)

Jarraian, atal honetan jorratutako artikuluek ateratako emaitzen konparaketa egiteko grafiko bat aurkezten da: (5. irudia)



5. irudia: egileak eginda

MURRIZKETA SODIKOA ETA HIDRIKOA

2016an, adibidez, Scottish Intercollegiate Guidelines Network-ak, <6 g gatz/eguneko (2.4 g sodio/eguneko) gomendioa eman zuen BG-a zuten pazienteentzako, likidoen murrizketa individualizatuarekin batera hainbat deskonpentsazio izan duen jendearentzat. Beste hainbat guidek ere bi neurriak batera gomendatzen dituzte BGK-an^{14,35}.

Atal honetan aztertutako artikuluen artean, Philipson H, et al.-ek aldagai gehien neurtu zutenak ziren. BGK egonkorra zuten pazienteak 24h-ko gernu-bilketa egin zuten hiru egun jarraietan azido para-aminobenzoikoarekin batera bilketaren osotasuna baloratzeko. Dieta Semi-quantitative Food Frequency Questionnaire (FFQ)-ren bidez balioztatu zen. IT-an, 2-3 g sodio/eguneko murrizketa sodikoa eta 1,5L/eguneko murrizketa hidrikoa izan zuten, era pertsonalizatu batean doitu dietista edo trebatutako erizain baten esku, hau da, pertsonaren ohitura kulturalak, ekonomikoak eta sozialak kontuan hartuta, baita adierazitako frogaren eta galdetegiaren emaitzak ere. Ez zegoen murrizketa hidrikorik ezarri janarian bertan aurkitutako

likidoetan, zopak eta postre likidoak ez ezik. KT-an, ohiko zainketak eskeini ziren, BG-aren klinika eramaten duten erizainek emandakoak bezala (« ez edan gehiegi eta sodioarekin kontuz izatea » bezalako gomendioak ematen ziren, adibidez). 12 aste geroago, IT-koek NYHA maila hobetu zuten KT-arekin alderatuta era esanguratsu batean ($p=0.01$). Hasieran, IT-an 10 paziente NYHA maila II-koak ziren eta 35 maila III-koak. Azkenean, NYHA maila II-an 16 pertsona zeuden, maila III-an 28 eta bat 1. mailara jaitsi egin zen. KT-an ere aldaketak egon ziren. Hasieran, 12 paziente maila II-an zeuden eta 33 maila III-an. Amaieran, berriz, 10 pertsona NYHA maila II-an eta 35 III-an zeuden, hau da, taldearen egoera orokorra okerragotu egin zen. Bi taldeen arteko desberdintasuna hankaren edemari buruz esanguratsua izan zen ($p=0.01$), IT-a hobeto puntuatu zuelako 4 puntuko eskalan. Aipatzekoa da interbentzioak ez zuela egarrian ezta BK-an eraginik izan³⁶.

